

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

640/2024 Dekretua, alkate-udalburuarena. Administrazio orokorreko teknikaria karrerako funtzionario izendatzea

640 zenbakidun alkate-udalburuak 2024ko apirilaren 22an emandako Dekretuaren bidez, administrazio orokorreko teknikari hau izendatu da:

Egoitz Jaio Gabiola, Laudioko Udaleko karrerako funtzionarioa, administrazio orokorreko eskalako ogasuneko goi-mailako teknikaria, azpieskala teknikoa, A1 taldea, 3003 kodea duen lanpostua, 4. hizkuntza-eskakizuna, 1995eko uztailaren 30eko derrigortasun datarekin.

Interesatuak 10 eguneko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOean argitaratzen denetik aurrera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Aukerako berraztertze errekurtso hori jarri ezean, zabalik geratuko da bide judiziala; beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2024ko apirilaren 22a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ